

ikasmina:

Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Pertsonak eta ikaskuntza formala

89. dokumentua

2022ko otsaila

Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
Gipuzkoa, un territorio que aprende.

**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak.....	4
2.1. Ikasten duten pertsonak	4
3. Pertsonak eta ikaskuntza formala.....	6
3.1. Ikasketa formaleko partaidetza: generoa eta adina	6
3.2. Ikasketa formala: ikasketa maila eta laneko egoera	8
3.3. Ikasketa formalerako arrazoiak.....	10
3.4. Ikasketa formalek ekintzen maiztasuna.....	14

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizarte bihurtu nahi du. Horretarako, uste dugu bizitza osoko ikaskuntza oso tresna garrantzitsua dela; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala eskaintzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Inguruneko Departamentuak uste du talentuaren ikaskuntza eta garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatz: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du. Urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzak biltzen ditu eta 2022ko ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

Dokumentu honek ikasketa formaleko partaidetzarekin lotutako emaitzak erakusten ditu denbora-tarte zabala aintzat hartuta. Hala, pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa), pandemian zehar (2020-2021eko batezbestekoa) eta gaur egun (2022) izandako bilakaera zein izan den ikus dezakegu.


2. Ikasten ari diren gipuzkoarrak

2.1. Ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako hamar heldutik lau ikasten ari dira

2022an, Gipuzkoako hamar heldutik (25 eta 74 urte artean) lauk¹ (% 39,2) hartu dute parte azken hamabi hilabeteotan ikasketako jardueraren batean (formala edo ez-formala). Ratio hori pandemiako aldi gogorrean (2020-2021eko batezbestekoa) izan zenaren antzekoa da, eta pandemia aurreko aldian (2018-2019ko batezbestekoa) izandakoaren oso antzekoa. Horrek guztiak agerian uzten du Gipuzkoako helduek ikaskuntzan duten partaidetza finkatuta dagoela.

1. grafikoa. Ikaskuntza iraunkorra egiten duten pertsonak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua


¹ Gipuzkoako helduen bitzita osoko ikaskuntzari buruzko inkesta (2022. urtearen hasieran egindakoa).

Bizitzan zeharreko ikaskuntzako jarduerak bi ikasketa motarekin lotuta daude:

- Ikasketa formala. Hezkuntza arloak (baimendutako pertsonak eta erakundeak) eskaintzen dituen eta sartzeko baldintzei eta curriculum-edukiei dagokionez araututa dauden ikasketa-jarduerei egiten die erreferentzia. Jarduera horien azken helburua titulazio ofiziala lortzea izaten da.
- Ikasketa ez-formala. Edozein esparrutan (hezkuntza-erakundea, enpresa, beste batzuk eta abar) bideratutako ikasketako jarduerak biltzen ditu, horien helburua ezarritako edukien programa jakinaren arabera ikasketako xede batzuk lortzea denean, baina amaitzean titulu baten aitortpen ofiziala lortu gabe (dena den ziurtagiri mota ezberdinak jaso daitezke).

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Azken urtean, Gipuzkoako hamar heldutik batek (gutxi gorabehera) hartu du parte ikasketa formaleko jardueraren batean. Ratio hori aurreko aldirian izandakoa baino zertxobait handiagoa da.

Ikasketa ez-formalari dagokionez (formala baino hiru aldiz handiagoa da), partaidetza-tasa zertxobait gutxitu da. 2023ko emaitzek erakutsiko digute beheranzko joera hori finkatzen den ala ez.

3. Pertsonak eta ikaskuntza formala


3.1. Ikasketa formaleko partaidetza: generoa eta adina

Ikasketa formaleko partaidetza (% 10,5) zerbait handiagoa da emakumeen (% 12,5) artean

Gipuzkoako hamar heldutik batek adierazi du kontsulta aurreko hamabi hilabeteetan ikasketa formaleko jardueraren batean parte hartu duela. Emaitzari erreparatzen badiogu, generoaren arabera aldeak ikusiko ditugu eta emakumeen kolektiboa da jarduera mota horietan partaidetza handiena izan duena (% 12,5 vs. % 8,5).

Denbora-tarte zabalagoa hartzen badugu, emakumeek ikasketa formalean izandako partaidetzak goranzko joera duela ikusiko dugu. Pandemian zehar eta gaur egun, emakumeen partaidetza-ratioak, gainera, aurreko aldian izandakoak baino handiagoak dira. Aldiz, gizonen kolektiboan ez da nabari bilakaera hori.

3. grafikoa Ikasketa formala egiten dutenak, sexuaren arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua


Pertsonen adina, ikasketa formaleko partaidetzan faktore erabakigarria

Grafikoan ikus dezakegun moduan, zuzeneko lotura dago pertsonen adinaren eta ikasketa formaleko jardueretan duten partaidetzaren artean. Hala, adinak gora egin ahala, partaidetza-tasa nabarmen gutxitzen da.

Hala, 25 eta 34 urte arteko pertsonen % 27,7k hartu du parte kontsulta egin aurreko 12 hilabeteetan ikasketa formaleko jardueraren batean. Ratio hori % 12ra arte gutxitzen da 35 eta 44 urteko pertsonen artean, % 8,2ra 45 eta 54 urte artekoen artean, eta % 5,9ra 55 eta 64 urte artekoen artean. Amaitzeko, datuen arabera, 65 eta 74 urte arteko pertsonek azken urtean ikasketa formaleko jarduera bakar batean ere ez dute parte hartu. Horren ondorioz, ikasketa formaleko partaidetzan gazteenen eta adin handienekoen arteko partaidetza-arrakala 27,7 puntukoa da.

Pandemian zehar, aztertutako adin-talde guztietan partaidetzan jaitsiera txikia gertatu zen ikasketa formalean. Salbuespena adin handienekoen taldekoarena izan zen. 2022an, aldiz, joera alderantzizkoa izan zen eta partaidetza mailak adin-tarte guztietan berreskuratu ziren, adin handienekoen taldean izan ezik.

4. grafikoa Ikasketa formala egiten dutenak, adinarekin arabera



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.2. Ikasketa formala: ikasketa maila eta laneko egoera


Ikasketa mailak eragina du ikasketa formaleko partaidetzan

Adinarekin gertatzen den bezalaxe, pertsonak lortutako gehieneko ikasketa maila² erabakigarria da ikasketa formalean duen partaidetzan. Hala, ikasketa formaleko jardueretako partaidetza handitu egiten da ikasketa mailak gora egin ahala.

Zehatzago esanda, hirugarren mailako ikasketak dituzten Gipuzkoako helduen % 14,4k adierazi du kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan ikasketa formaleko jardueraren bat egin duela. Aldiz, lehen mailako ikasketak dituztenen artean, jarduera horiek egin dituztela adierazi dutenak % 3,6 dira. Hala, zertxobait gutxitu da goi mailako ikasketak dituzten pertsonen ikasketa formalean duten partaidetza, baina, aldiz, ikasketa maila txikieneko taldean mantendu egin da. Ondorioz, bi taldeen arteko aldea 10,8 puntukoa da.

5. grafikoa Ikasketa formala, ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

² Lortutako prestakuntza maila ikasten jarraitzeko eta, batez ere, ikasketa formaleko modalitatearen baitan egiteko erabakigarria dela ikus daiteke. Izan ere, hezkuntza-sistemek ezarritako eskakizunak eta zorrotasuna (tituluak betetzea) direla eta, zailagoa da maila baxuagoa duten pertsonen sistema baruan jarraitzea eta/edo bigarren aukera batera sartzea (Europako Batzordea).



Era berean, azpimarratu beharrekoa da bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen partaidetzan ikusitako bilakaera. Izan ere, pandemia aurreko mailak berreskuratzeaz gain, gainditu ere egin dituzte.


2022an, langabezian dauden lau lagunefik batek jaso du prestakuntza

Lan-egoerari dagokionez, 2022an, langabezian dauden pertsonak izan dute partaidetza handiena ikasketa formalean (% 26,5). Jarraian, enplegua duten pertsonak ageri dira zerrendan (% 11,6) eta, amaitzeko, beste egoeraren batean daudenak (% 1,7).

Aurreko aldietan bezalaxe langabezian dauden biztanleen ehunekoa handiagoa da ikasketa formaleko partaidetzan gainerako profiletakoarekin alderatuta. Dena den, azken urtean, jarduera horretan igoera handia sumatu da eta baliteke hori langabezian dauden pertsonak lan-merkatu sartzeko edo berriro sartzeko titulu ofizial baten bidez ezagutzak akreditatzeko duten behararekin lotuta egotea.

6. grafikoa Ikasketa formala, laneko egoeraren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.3. Ikasketa formalerako arrazoiak

Kasu guztietan, nagusi dira ikasteko arrazoi profesionalak

Azterketa honen helburuetarako, ikasteko motibazioa bi talde nagusitan banatzen da: argudio profesionalak eta pertsonalak. 2022an, kontsultatutako hamar lagunetik seik adierazi dute arrazoi profesionalak direla eta ikasketa formaleko jardueraren batean parte hartu dutela. Balio hori aurreko aldietakoa baino nabarmen handiagoa da.

Gainera, ez dago alde esanguratsurik generoaren ikuspegiari dagokionez. Gizonezkoen % 61,8k arrazoi profesionalak aipatu dituzte eta, aldiz, emakumezkoen % 60,0k aipatu dute arrazoi hori ikasketa formala egiteari dagokionez. Bi kolektiboen kasuan, azken urtean handitu egin dira arrazoi profesionalak eta, aldiz, gutxitu motibazio pertsonala.

1. taula Ikasketa formalerako motibazioa, generoaren arabera

Ikaskuntza formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA		
2018-2019ko batezbestekoa	55,3	44,7
2020-2021eko batezbestekoa	52,1	47,9
2022	60,7	39,3
Emakumeak		
2018-2019ko batezbestekoa	56,4	43,6
2020-2021eko batezbestekoa	56,7	43,3
2022	60,0	40,0
Gizonak		
2018-2019ko batezbestekoa	55,0	45,0
2020-2021eko batezbestekoa	45,6	54,4
2022	61,8	38,2

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Adinarekin lotuta, ikasketa formalean parte hartzeko arrazoietan egon daitezkeen aldeei dagokienez, arrazoi profesionalak bultzatutako partaidetza handiagoa da 35 eta 44 urte artekoen adin-taldean. Hain zuzen ere, lau lagunetik hiruk aipatu dute arrazoi hori.

Gazteenen artean (25-34 urte), arrazoi profesionalak ugariagoak dira pertsonalak baino baina neurri txikiagoan (% 58,3 arrazoi profesionalengatik, eta % 41,7 arrazoi pertsonalengatik).

Amaitzeko, ikasketa formaleko jardueretan izandako partaidetzarekin lotuta, 45 eta 64 urte arteko pertsonak neurri berean aipatu dituzte arrazoi pertsonalak eta profesionalak. Aldiz, 65 eta 74 urte artekoen kolektiboan (gehienak erretiroa hartuta daude), arrazoi pertsonalak bakarrik aipatu dituzte.

2. taula Ikasketa formalerako arrazoiak, adinaren arabera

Ikaskuntza formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
25-34 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	64,4	35,6
2020-2021eko batezbestekoa	48,5	51,5
2022	58,3	41,7
35-44 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	51,7	48,3
2020-2021eko batezbestekoa	67,5	32,5
2022	75,0	25,0
45-64 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	42,5	57,5
2020-2021eko batezbestekoa	43,3	56,7
2022	50,0	50,0
65-74 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	0,0	100,0
2020-2021eko batezbestekoa	0,0	100,0
2022	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Ikasketa formalerako hiru arrazoi dira nagusi: lanean hobetzeko arlo erabilgarrietan ezagutzak eskuratzea eta/edo laneko aurreikuspenak hobetzea, ziurtagiria lortzea eta norberaren interesa

Ikasketa formaleko jarduerak egiteko garaian gipuzkoarrek aipatutako argudioak aztertzen baditugu, beste behin, arrazoi profesionalak duten garrantzia nabarmentzen da. Hala arrazoi profesionalak aipatzen direnean, emaitzak honako hauek nabarmentzen dira:

- Arrazoi profesionalekin lotutako motibazio nagusia *“ziurtagiri bat lortzea”* (% 83,3) zuzenduta dago eta jarraian *“nire lana hobeto egitea eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzea”* (% 75,0) azaltzen da. Bi arrazoi garrantzitsu dira eta lotura zuzena dute lanarekin, ibilbide profesionalarekin eta pertsonen enplegarritasunarekin.
- Argudioen bigarren blokean, honako hauek azaltzen dira: *“lana lortzeko nire aukerak ugaritzea”* (% 58,3) eta *“lana/lanbidea aldatzeko aukerak handitzea”* (% 41,7), lan-ibilbidearekin lotura handiagoa dutenak.

Ikasketa formaleko jarduerak egiteko arrazoi pertsonalen artean, honako hau da nagusi: *“Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzea”* (% 90,5). Oso atzean geratu dira gainerako argudioak: *“Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzea”* (% 69,0) eta *“jendea ezagutzeko/dibertsioagatik”* (% 23,8).

3. taula Ikasketa formalerako arrazoi espezifikoak

Ikaskuntza formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	76,3	79,8	83,3
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,6	68,9	75,0
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	59,7	50,9	58,3
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	48,2	42,7	41,7
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	42,0	42,0	36,9
Nire negozioa sortzea	12,1	12,1	10,7
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	86,0	79,4	90,5
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	68,8	61,9	69,0
Jendea ezagutzea/dibertsioa	40,0	29,8	23,8

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. *Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea* Departamentua

Ikasketa formalean parte hartzeko arrazoiekin lotutako lehentasunen sailkapena antzekoa da gizonezkoen eta emakumeen kolektiboetan, baina badaude ñabardura batzuk. Hala:

- Gizonezkoen % 58,8k aipatu dute “Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzea”. Aldiz, emakumezkoen % 30,0k aipatu dute arrazoi hori.
- “Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea” arrazoiak askoz ere ehuneko handiagoa lortu du gizonezkoen artean (% 70,6) emakumezkoen artean (% 50,0) baino.
- Era berean, “Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea” arrazoiak gehiago aipatu dute gizonezkoek (% 50,0) emakumezkoek (% 28,0) baino.

4. taula Ikasketa formalerako arrazoi espezifikoak, generoaren arabera

Ikaskuntza formala egiten duen 25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbestekoa	2020-2021eko batezbestekoa	2022
Emakumeak			
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	73,9	81,0	82,0
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,1	73,2	74,0
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	56,5	52,8	50,0
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	41,5	40,0	30,0
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	36,3	43,6	28,0
Nire negozioa sortzea	9,3	9,3	12,0
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	81,3	81,4	94,0
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	61,3	62,5	70,0
Jendea ezagutzea/dibertsioa	40,2	29,6	24,0
Gizonak			
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	79,2	78,3	85,3
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	76,3	62,6	76,5
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	63,7	48,3	70,6
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	56,2	46,5	58,8
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzea	48,3	39,7	50,0
Nire negozioa sortzea	15,8	15,8	8,8
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	90,9	76,4	85,3
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak eskuratzeko	76,9	60,8	67,6
Jendea ezagutzea/dibertsioa	40,4	30,0	23,5

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

3.4. Ikasketa formalek ekintzen maiztasuna

Ikasketa formaleko partaidetza jarraitua % 5 baino gutxiagokoa izan da

Jarraian, ikaskuntza-jarduerak denbora mailako bi une jakinetan egiteari lotutako datuak ikusiko ditugu: ale batetik, kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan egindako ikasketak landuko ditugu eta, bestetik, aurreko lau asteetako (hau da, ikasketa jarraitua).

Horrekin lotuta, 2022an, kontsultari erantzundako pertsonen % 4,9k hartzen dute parte ikasketa formal jarraituko jardueretan eta emakumezkoen partaidetza handiagoa da (% 6,0) gizonazkoen artean baino (% 3,7). Hurrengo taulan ikus dezakegun moduan, aztertutako azken bi aldietan adierazle horiek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi dute.

5. taula Ikasketa formaleko maiztasuna, generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbesteko a	2020-2021eko batezbesteko a	2022
Azken 12 hilabeteak			
Guztira	9,7	9,0	10,5
Gizonak	9,5	7,5	8,5
Emakumeak	9,9	10,6	12,5
Azken 4 asteak			
Guztira	6,2	4,7	4,9
Gizonak	6,0	3,5	3,7
Emakumeak	6,4	6,0	6,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua

Adin-taldeen arabera azterketari erreparatzen badiogu, ikasketa formaleko modalitatearen arabera partaidetza jarraitua gazteenen artean nabarmen handiagoa (% 14,6) dela ikusiko dugu. Hain zuzen ere, joera hori bera ikusi izan dugu aurreko aldietan ere. Aldiz, pertsonen adinak gora egin ahala, ikasketa formaleko partaidetza jarraitua gutxitu egiten da eta 65 eta 74 urteko pertsonen kolektiboan desagertu egiten dela esan dezakegu. Azken 12 hilabeteotan egindako prestakuntzarekin lotuta ikusitako portaeraren antzekoa da hori.


6. taula Ikasketa formaleko maiztasuna, adin-taldean arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019ko batezbesteko a	2020-2021eko batezbesteko a	2022
Azken 12 hilabeteak			
25-34 urte	28,0	24,5	27,7
35-44 urte	12,0	10,0	12,0
45-64 urte	6,1	5,4	7,1
65-74 urte	1,1	1,5	0,0
Azken 4 asteak			
25-34 urte	19,5	16,9	14,6
35-44 urte	6,5	4,3	5,0
45-64 urte	3,2	2,1	2,9
65-74 urte	0,8	0,4	0,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurunea Departamentua



Izenburua:	Pertsonak eta ikaskuntza formala 89. dokumentua, 2023ko otsaila
Sustatu eta finantzatu:	Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa Ingurune Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia 
Egilea	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa lana:	Datakey, S.A.